

Egoera ekonomikoa eta Merkatuak ASTEKO LABURPENA

2017ko maiatzaren 1etik maiatzaren 5era

INGURU MAKROA:


- ASTEKO DATUEN PODIUMA
- KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...

ASTE HONETAN MERKATUETAN

INGURU MAKROA

ASTEKO DATUEN PODIUMA

EUROPA: MANUFAKTUREN ETA ZERBITZUEN PMIa



Datuaren analisia


Euroguneko Manufakturen sektorearen apirileko behin betiko PMI indizea 56,7 punturaino igo zen, 6 urteotako maximoa (56,8 aurreikusitakoa eta 56,2 aurrekoa), ekoizpenaren zein eskari berrien eta enpleguaren bultzadari esker. Aztertutako zortzi herrialdeetako zazpitan baldintza operatiboak hobetu egin ziren, eta Alemania izan zen guztien buru (58,2). Grezia izan zen, aldiz, salbuespen bakarra (48,2), zortzigarren hilabetez jarraian atzera egin baitzuen, nahiz eta azken lau hilabeteotako maximora iritsi zen, oraindik eremu negatiboan dagoen arren. Zerbitzuen sektoreko PMIa 56,4 puntukoa da Eurogunean (56 martxoan eta 56,2 aurreikuspena). Apirilean, Euroguneko hazkunde ekonomikoa azkartu egin da, sei urtetan lortutako mailarik altuenera iristeraino, PMI konposatuaren arabera, 56,8 puntuetaraino iritsi zena (56,7 aurreikusitakoa). Gehien hazi ziren ekonomiak Irlanda (58,7) eta Espainia (57,3 vs 57 aurreikusitakoa) izan ziren.

Adierazlearen azalpena

PMI Manufaktura/Zerbitzuak indizeak hileroko erosteketan profesionalak eta enpresetako exekutiboek manufaktura-sektorearen egoerari buruz egiten zaien inkesta bat du oinarri. Fabrikazioaren/zerbitzuen sektorearen aldean ekonomiaren egoera zein den neurtzeko balio du. Adierazle ekonomiko aurreratu bat da, hau da, beste adierazle batzuek etorkizunean izango duten bilakaera aurreratzeko balio digu; kasu honetan, esate baterako, BPGd-arena. Emandako datua 50etik gorakoa bada, ekonomia hazten ari dela esan nahi du; hortik beherakoa bada, ordea, ekonomia uzkuertzen ari den seinale.

ASTEKO DATUEN PODIUMA

AEB: MANUFAKTUREN ETA ZERBITZUEN ISM



Datuaren analisia

ISM adierazleak Estatu Batuetako manufakturen jardueraren moteltze bat erakutsi zuen apirilean. 54,8 puntukoa izan zen, esperotako 56,5 eta aurreko hileko 57,2 puntuen azpitik. Manufaktura ez den ISMa 57,5 punturaino sendotu zen apirilean, aurreko 55,2tik, eta aurreikusitako 55,8 puntuetatik gora kokatu zen. Indize honetarako kontuan hartutako manufaktura ez diren 18 industrietatik gutxienez 16 hazi egin ziren apirilean, handizkako merkataritza, zerbitzuak eta artea, entretenimendua eta jolasa buru zirela.

Adierazlearen azalpena

ISM zerbitzuen/manufaktura-indizeak konpainia amerikar nagusietako erosketen arduradunei hileroko egiten zaien inkesta bat du oinarri. Bertan, manufaktura-sektorearen egoeren inguruan galdetzen zaie. Fabrikazioaren/zerbitzuen sektorearen aldean ekonomiaren egoera zein den neurtzeko balio du. Adierazle ekonomiko aurreratu bat da, hau da, beste adierazle batzuek etorkizunean izango duten bilakaera aurreratzeko balio digu; kasu honetan, esate baterako, BPGd-arena. Emandako datua 50etik gorakoa bada, ekonomia hazten ari dela esan nahi du; hortik beherakoa bada, ordea, ekonomia uzkuertzen ari den seinale.

INGURU MAKROA

ASTEKO DATUEN PODIUMA

AEB: ENPLEGUAREN TXOSTENA



Datuaren analisia

Estatu Batuetako ekonomiak nekazaritzakoak ez diren 211.000 lan berri sortu zituen martxoan, aurreko hilean sortutako 98.000 lanpostuen mugatik oso gora. Langabezia-tasak, beraz, behera egin zuen % 4,4raino, aurreko hileko % 4,5etik. Analistek 190.000 enplegu sortzea espero zuten, benetan sortutakoak baino 21.000 gutxiago. Lanpostu hauek batez ere sektore hauetan sortu dira: aisialdia, osasuna, finantza-jarduerak eta meatzaritza. Gauzak horrela, langabezia tasa minimoetan dago 2007ko maiatzetik, % 4,4ra ere jaitsi zenean. Gainera, AEBetako langabe kopuruan ez zen aldaketarik eman (7,1 milioi pertsona), eta soldaten urte arteko igoera lan egindako orduko % 2,5ekoa izan zen.



Adierazlearen azalpena

Enplegu-txostena hilerok argitaratzen du Estatu Batuetako Lan Sailak. Estatu Batuetako lan-merkatuaren egoerari buruzko txosten osatu bat da, eta hainbat datu aurki daitezke bertan; horien artean nabarmenenak: enpleguaren sorrera (nekazaritza-sektorea kanpo utzita), langabezia-tasa eta soldaten bilakaera. Txosten honi esker, Estatu Batuetako ekonomiaren bilakaeraren gaineko pronostiko bat egin daiteke. Lan-merkatua hazten ari bada, herritarren errenta erabilgarria handitu egiten da. Beraz, kontsumitzailearen gastua igo daiteke, BPGd-aren igoera bat eragingo lukeena, eta, ondorioz, herrialdearen ekonomiaren hobekuntza.

INGURU MAKROA

ASTEKO DATUEN PODIUMA

TXINA ETA JAPONIA: MANUFAKTUREN ETA ZERBITZUEN PMIa



Datuaren analisia

Txinan, manufakturen sektorearen hazkundera moteldu egin zen apirilean, eta azken zazpi hiletako erritmo ahulena izan zuen (Caixin manuf PMI 50,3, martxoko 51,2aren eta esperotako 51aren aldean); barne-eskaria eta esportazioa ahuldu egin dira. Txinako hazkunde ekonomikoak sendo dirau, baina apaltzen hasi da, ustekabeko urte hasiera indartsu baten ondoren. Zerbitzuen PMIak behera egin zuen laugarren hilabetez jarraian, martxoko 52,2tik 51,5era.

Japonian, manufakturen sektorearen jardueraren hazkundera handiagoa izan zen maiatzean apirilean baino (52,7 vs 52,4 martxoan), esportazio-aginduek gora egin zutelako. Zerbitzuen PMIaren hazkundera apur bat txikiagoa izan zen (52,2 vs 52,9 martxoan), negozio berriek erritmoa galdu zutelako, ekonomia bultzada galtzen egon litekeen seinale.

Adierazlearen azalpena

PMI Manufaktura/Zerbitzuak indizeak hilero erosketen profesionalei eta enpresetako exekutiboek manufaktura-sektorearen egoerari buruz egiten zaien inkesta bat du oinarri. Fabrikazioaren/zerbitzuen sektorearen aldean ekonomiaren egoera zein den neurtzeko balio du. Adierazle ekonomiko aurreratu bat da, hau da, beste adierazle batzuek etorkizunean izango duten bilakaera aurreratzeko balio digu; kasu honetan, esate baterako, BPGd-arena. Emandako datua 50etik gorakoa bada, ekonomia hazten ari dela esan nahi du; hortik beherakoa bada, ordea, ekonomia uzkuratzen ari den seinale.

INGURU MAKROA

KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...

Data	Eremua	Adierazlea	Aurreikus
05/08	Japonia	Kontsumitzailearen konfiantza-indizea	--
05/08	Eurogunea	Sentix inbertsiogilearen konfiantza	24.7
05/08	Txina	Urte arteko inportazioak	% 18.0
05/08	Txina	Urte arteko esportazioak	% 11.3
05/08	Txina	Balantza komertziala	\$35.20b
05/09	Alemania	Urte arteko WDA industria-ekoizpena	% 2.4
05/09	Alemania	Balantza komertziala	23.0b
05/10	Txina	Urte arteko KPIa	% 1.1
05/10	Txina	Urte arteko ekoizpenaren prezioen indizea	% 6.7
05/10	Frantzia	Balantza komertziala	--
05/10	Frantzia	Urte arteko industria-ekoizpena	% 0.5
05/10	Estatu Batuak	MBA Hipoteken eskaria	--
05/11	Erresuma Batua	Urte arteko industria-ekoizpena	% 2.0
05/11	Erresuma Batua	Balantza komertziala	-£3000
05/11	Erresuma Batua	NIESR BPGd-aren kalkulua	--
05/11	Estatu Batuak	Hasierako langabezia-eskaerak	--
05/12	Alemania	Hiruhileko BPGd SA	% 0.7
05/12	Alemania	Urte arteko KPIa	% 2.0
05/12	Espainia	Urte arteko KPIa	% 2.6
05/12	Eurogunea	Urte arteko WDA industria-ekoizpena	% 2.4
05/12	Estatu Batuak	Urte arteko KPIa	% 2.3
05/12	Estatu Batuak	Sentimendua Michiganeko Unibertsitatea	97.0
05/12	Estatu Batuak	Oraingo egoera Mich. U.	--
05/12	Estatu Batuak	Aurreikuspenak Mich. U.	--

ASTE HONETAN MERKATUETAN

BURTSAK:

Itxiera positiboen astea Atlantikoaren bi aldeetan, nabarmenagoak Europan AEBetan baino, enpresen emaitzen argitalpenen eraginpean. Hori guztia egonkortasun politiko handiago batean, eta inbertsiogileak Fed-en mezuaren zain daudela. Iragan asteazkenean, moneta-erakundeak tasa ofiziala bere horretan mantendu zuen. Bere komunikatuan, bere ekonomiaren sendotasunaz hitz egin zuen, eta horrela, ekainean tasak igotzearen aukerak indartu egin ziren. Agenda politikoari dagokionez, Europan, hauteskunde-inkestek abantaila handia ematen zioten Macron zentroko hautagaiari Marine Le Pen-en aurrean Frantziako hauteskundearen bigarren itzulian. Hauteskundeak igande honetan egin dira, eta Europaren aldeko hautagaia izan da garaile. Merkatuaren baikortasunari esker, Cac-ak azken bederatzi urteotako maximoetara iritsi zen. AEBetan, Trumpek proposatutako osasun-erreforma onartu zuen ordezkarien ganberak, eta orain Senatuaren onspena jasotzeko prozesu zailari ekin beharko dio. Lehenengo hiruhilekoko enpresen emaitza onak nabarmendu behar dira, aurreikuspen guztiak gaintitu baitituzte, eta etekinen hazkundera bi digitukoa izan da, hala Europan nola AEBetan. Horrekin guztiarekin, Eurostoxx 50 indizeak +% 2,79an itxi zuen, S&P % 0,63an, eta Gorakorrek emaitza mistoa izan zuten.

ERRENTA FINKOIA:

Frantziako hauteskundeetan Macron irabaziko zuela sinetsita eta egoera makroaren tonua ona zenez, arriskuarekiko beldurra uxatu egin zen, eta horrek eragina izan zuen errentagarritasun subiranoetan. Bund-ak 10 op egin zuen gora, % 0,42raino, eta periferikoek diferentziala hobetu zuten. Espainiako 10 urterakoak 9 op egin zuen behera, % 1,56raino, eta arrisku prima, aldiz, 114 op-raino jaitsi zen. Frantzian, Alemaniarekiko diferentziala lasaitu eta urteko maila apaleneraino jaitsi zen. AEBetan, 10 urterako bonuaren errentagarritasunak 7 op egin zuen gora, % 2,35eraino, ekainean Fed-en tasak igotzearen aukerak % 100eraino igo ondoren. Kredituak, bestalde, hobera egin zuen eta bere diferentzialak estutu zituen.

DIBISAK/LEHENGAIK:

Dibisen merkatuan, euroak % 0,82 egin zuen gora dolarraren aldean, Europako hauteskundeek sortzen duten konfiantza handiagoari esker. Yenak, urrea bezala, balioa galdu zuen babes-aktiboak diren heinean. Lehengaietan, LPEEK eta beste zenbait herrialdek, hala nola Errusiak, petrolio gordinaren ekoizpena murriztearen eraginak ezerezean geratzen ari dira Iparramerikako 'shale oil-aren' ekoizpenak gora egin duelako; horrek petrolioaren prezioa -% 3,91 murriztu du, 48,89 \$/upela mailaraino.

INDICES	PRECIO	%Variación Semanal	% Var 2017
MSCI WORLD (Local)	1.459,25	0,95	6,96
IBEX 35	11.135,40	3,92	19,07
DJ EURO STOXX 50	3.658,79	2,79	11,19
DJ STOXX 50	3.244,64	1,94	7,78
FTSE	7.297,43	1,30	2,16
S&P 500	2.399,29	0,63	7,17
Dow Jones	21.006,94	0,32	6,30
NASDAQ	6.100,76	0,88	13,33
NIKKEI 225	19.445,70	1,30	1,73
MSCI EMERGENTES (Lo	52.346,07	0,03	9,85
MEXBOL	49.485,67	0,46	8,42
BOVESPA	65.709,73	0,47	9,10
SHANGHAI	3.249,40	-1,64	-0,01
Rusia Rts Moscú	1.085,68	-2,58	-5,78

Tipos Gobiernos	Nivel	Variación Semanal	Var 2017
ALEMANIA 2 AÑOS	-0,68	0,06	0,09
ESPAÑA 2 AÑOS	-0,29	-0,03	-0,01
EE.UU 2 AÑOS	1,31	0,05	0,12
ALEMANIA 10 AÑOS	0,42	0,10	0,21
ESPAÑA 10 AÑOS	1,56	-0,09	0,17
EE.UU. 10 AÑOS	2,35	0,07	-0,10
ALEMANIA 30 AÑOS	1,20	0,09	0,25
ESPAÑA 30 AÑOS	2,86	-0,10	0,24
EE.UU. 30 AÑOS	2,98	0,03	-0,08
Spread de credito (pb)			
MARKIT ITRX EUROPE 06/22	63,49	-3,05	-8,56
MARKIT ITRX EUR XOVER 06/22	255,81	-10,19	-32,89

Divisas	Nivel	%Variación Semanal	% Var 2017
Dólar / Euro	1,10	0,82	4,20
Yen / Euro	123,91	2,02	0,71
Libra/ Euro	0,85	0,76	-0,74

Materia Primas	Nivel	%Variación Semanal	% Var 2017
Petroleo (Brendt)	48,89	-3,91	-11,77
Oro	1.221,60	-3,68	6,02

Kutxabank Gestión SGIIC SAUk prestatu du agiri hau, eta horretarako, fidagarriak diren informazio-iturriak erabili ditu. Hala ere, ezin du ziurtatu bertan jasotako informazioa eta iritziak erabat zehatzak, zuzenak eta osoak direnik, eta ez du bere gain hartzen horren gaineko inolako erantzukizunik. Agiri honetan agertzen diren informazio eta iritziak edonoiz aldatu daitezke, aurretik horren berri eman beharrik gabe. Kutxabank Gestión SGIIC SAUk ez du agiri honen eta bere edukien erabilerak sortu ditzakeen kalteen gaineko erantzukizunik hartzen. Finantza-merkatuetan eragiketak egiteak arrisku handiak sortu ditzake, eta posizioa etengabe zaindu behar da. Txosten hau ez da eskaintza bat ez eta finantza-aktiboak erosi edo saltzeko eskaera bat ere. Agiri hau zu informatzeko besterik ez da, eta hirugarrenek ezin dute berregin edo banatu. Era berean, ezin da, inolako aitzakiapean, osorik edo zati bat argitaratu.